

## **Euskaraz hitz egiteko gaitasuna, erabilera eta gizarteratze taldeak**

(Lasarte-Orian 2002.urtean egindako ikerketaren inguruko hausnarketak)

Gazte euskaldunen kopurua ez da makala Lasarte-Orian, %63,4koa baita. Euskaldun horiek guztiak, gainera, alfabetatuak dira. Ez hori bakarrik. Badago multzo txiki bat, hots %17,4a, zeinak euskaraz mintzatzeko gauza ez izan arren ulertu behinik-behin ondo edo nahiko ondo ulertzen duena. Eskolak honetan guztian izan duen zerikusia ere ez da makala. Gogoratu beharra dago, esaterako, B eta D hizkuntzazko ereduetan hezia dela gazteen %80,2a eta horrek argiro adierazten du eskolak bertan ezagutu duen euskal ereduaren zabaltze orokorra.

Beste modu batera esanda, baldin eta arrotz batek Lasarte-Oriara etorri eta zoriz hautatutako hamar gazteekin euskaraz egingo balu, orduan:

- 1) hamarretik zortzik ulertuko lioke arazorik gabe.
- 2) hamarretik seik euskaraz erantzuko lioke (nahi izanez gero jakina).
- 3) hamarretik bik ez lioke ulertuko eta erdaraz erantzuko luke.

Ez dira nolanhikoak baldintza hauek euskararen normalizaziorako, ez horixe! Pentsa zitekeen, teoriarik behinik-behin, ez lukeela Lasarte-Orian gazte giroan euskara egin nahi duenak aparteko eragozpenik izan beharko bere nahia gauzatze aldera.

Hala ere praktikan, euskararen erabilera ez du gazte sareetan %30a baino hartzen. Erabilera eskasa da, egia esan, kanpoko baldintza objektiboek eskeintzen dutena kontuan harturik. Zer gertatzen ari da?

Lehendabizi, euskaldunen gaitasun erlatiboari begiratu behar diogu. %63,4a euskalduna dela esana dugu, baina ez dute denek, ez horixe!, mintzatzeko erraztasun bera. Multzo horretatik erdiak du erraztasun handia euskaraz hitz egiteko, hots, ez du eragozpen nabarmenik, erraz, berez eta jarioz egiten du, gutxiarik gaztelaniaz bezain ondo eta erraz egiten du. Beste erdiak, berriz, moldatzen da euskaraz, nahiko ongi egiten du, defendatu egiten da, baina eragozpenak baditu oraindik, jarioa ez da etengabe eta berezkoa, ahaleginak egin behar ditu hainbatetan nahi duena ongi adierazteko, gaztelaniaren makulua hartu beharko du maiz oztopoak gainditzeko, hitz batez, euskaraz moldatu arren gaztelaniaz askoz hobeto egiten du.

Lehenengoak, gutxienez gaztelania bezain ondo euskara menperatzen dutelako, gutxienez elebidun orekatutzat (edo euskal elebiduntzat, euskaraz gaztelaniaz baino errazago egiten dutenen kasuan) har daitezkeen moduan, bigarrenak erdal elebiduntzat hartu beharko liriteke, gaztelaniaz oso ondo egiten duten bitartean euskaraz nabarmen traketsago ibiltzen baitira. Pertsona bat, hizkuntzen artean aukera dezakeenean, “erraztasun printzipioa”ri lotuko zaio besteak beste.

Horren arabera, lehenetsi eta aukeratu egingo du energia xahutze gutxiago eskatzen dion hizkuntza eta hori gaztelania da erdal elebidunen kasuan. Erdal elebidun gehienek joera, lan honetako datuetan ikusi dugunez, zera izango da, hots, lagunekin gaztelania erabiltzekoa. Berez ez dute euskara erabiltzeko grinarik izango, non eta ez zaien kanpotik nolabait behartzen, esaterako solaskideak euskarari eusten dionean. Joera nagusi honetatik landa

badira gutxi batzuk horrela jokatzeko ez dutenak eta euskaraz aritzen direnak. Ez dakigu, ordea, berezko joera den edo kanpoaldeak (lagunek, solaskideek...) bultzatuta. Bietatik egongo da seguru asko. Baina hau guztia kasuistikaren barruan sartzen da. Ildo, bide eta joera nagusia, ordea, gaztelania aukeratu eta erabiltzekoa da.

Elebidun orekatuen (euskal elebidunen) joera nagusia euskara aukeratu eta erabiltzekoa da. Badira hemen ere salbuespenak eta hondarrak, baina ez dago zalantzarik ezen hamar elebidun orekatuetatik eta euskal elebidunetatik zortzik euskara aukeratu eta erabiltzen duela. Hauen kasuan “erraztasun printzipioa” orohar ez da determinantea, zeren gaztelaniaz bezala euskaraz ere erraz eta energia gutxiz egin baitezakete (ia kasu guztietan). Orduan bestelakoak dira hizkuntza bat ala bestea aukeratu eta erabiltzera bultzatuko dutenak. Talde identitateak eta hizkuntzarekiko sentimenduak, biek izango dute orduan berebiziko garrantzia. Norbere burua, buruz bezala bihotzez ere, euskalduntzat hartu izanak makurtuko du balantza euskararen aldera. Euskaraz hitz egin ohi duten gehien-gehienek euskara eta Euskal Herria besterik ez dituzte maite edo bai bederen haiek nagusiki maite.

Uste dugu, bai erdal elebidunen euskarazko erraztasun eza, bai eta elebidun orekatuen (eta euskal elebidunen) euskararekiko atximendu eta maitasuna ere, biek dutela zerikusia eskolarekin baino gehiago etxearekin. Argi dezagun kontua, erdal elebidunengandik hasita.

Badakigu datuengatik erdal elebidun gehien-gehienek ama erdalduna dutela. Ondoriozta ere egin daiteke beraz, oker handirik egin gabe, ezen etxeko hizkuntza giroa gaztelaniazkoa dutela. Ildo beretik esan liteke gazte horiek gaztelania izan dutela lehen hizkuntza, amarengandik jasotako hizkuntza alegia. Etxea ez da izan beraientzat euskal gunea. Bertan ez dute euskarazko praktikarik egin. Ez dute euskara bizi bere egiteko informal eta afektiboetan. Horren guztien faltan eskolak lagundu egin du haien euskalduntzea aurrera eramaten, baina ez du etxeak utziriko hizkuntzazko hutsunea estaltzeko adinako indarririk izan. Etxekoen eta bereziki amaren euskarazko bizipena eta praktika faltan izan duten gehien-gehienak erdal elebidun bihurtu dira, baldin eta eskolatzea euskal erduetan egin badute, oso gutxi izan dira, ordea, elebidun orekatuen mailara iritsitakoak. Ez ginateke oker izango baieztatzean etxea dela hizkuntzazko sena, jarioa, aberastuna eta erraztasuna eskuratzeko berezko tokia. Eskolak ezin du bere ahalegin hutsez etxeak eman ez duena estali eta ordezkatu.

Era berean, badakigu euskal elebidun eta elebidun orekatu gehien-gehienek, eskolatzea euskal erduetan ez ezik, ama ere euskalduna dutela. Etxea izan da urte luze eta garrantzitsuetan haien euskararen elikagai iturri nagusia. Bertan jaso dute euskarazko praktika ugari eta aberatsa. Bere bizitza afektibo guztia euskararen garapenarekin batera joan da. Euskarazko sena eta erraztasuna bere egin dute. Euskararekin identifikatzen eta bera maitatzen ikasi dute berez eta erraz. Amak haurarekin izaniko hizkuntzazko jokaerak ez du soilik hauraren hizkuntzazko gaitasuna eta erraztasuna landu, baina bai eta hizkuntzarekiko sentimendu, atxikimendu eta identitatea ere. Euskarazko eskolatzek, ondoren, etxearen kimua garatzen, zabaltzen eta bururaino eramaten baino ez du egingo. Eskolak euskal elebidunak edo elebidun orekatuak sortuko ditu, noiz eta atzean etxearen euskarazko eragina, eta ororen gainetik, amaren euskarazko jokaera denean sendo eta tinko. Hitzun hauek, oro har, euskara hautatu eta erabiliko dute bere harremanetan aukera egin dezaketenean.

Etxea eta eskola dira haurtzaroko bi harreman sare nagusiak. Hiztunen erraztasuna, jarrera eta jokaera ikusita, etxeak duela eskolak baino eragin sakonagoa hizkuntzako kontuetan baieztatu dezakegu. Hala ere, etxearen eragina guztiz moteldu edo indargabe liteke baldin eta inguruan eskolaren babesa eta sostengua izango ez balitz. Batak eta besteak elkarren beharra dute, baina haien arteko harremanetan etxea funtsezkoa den bitartean eskola osagarria da, gure ustez.

Gizarteko egiturak ere ez dira finkoak, ezta gutxiago ere. Eta aldatzen ari den gauzetako bat, hala iruditzen zaigu guri, familiak berak hizkuntza (eta beste gauza asko) transmititzeko duen indarra da (denboran eta intentsitatean neurtuta). Familiaren ordean, ugaritzen ari dira telebistako orduak, zaintzaileak, internetak... Kasu bakoitzean transmisiorako mekanismoak ezberdinak izango dira eta gu ez gara iritsi gizarteko aldaketa horiek hizkuntzako gaitasunak, jarrerak eta jokaerak finkatzen duten eragina neurtzera ez eta sortarazi dituzten aldaketak zehaztera. Hala ere, ikerketa honetan ateratako ondorio orokorrak, gizarteko aldaketak aldaketa, baliagarriak direla bere orokortasunean.

Kalean baina oso nabarmen egun eskoletan haurren arteko sare horizontalak osatzen hasten dira. Gelakideen artean taldetxoak sortzen dira eta horietako asko izango dira geroko kuadrila askoren abiapuntua. Baina ez dezagun ahaztu hizkuntzako erraztasuna bera dela taldetxoak osatzen zerikusit nabarmena duen aldagaietako bat. Euskaraz erraz moldatzen direnek (etxearen fruitu) berezko joera izango dute beraiek bezala euskaraz erraz moldatzen direnekin aritzekoa. Talde txiki hauek finkatzen diren neurrian ugaltu egiten da haien arteko harremana: atsedendietan, parkeetan, aisialdian. Hirugarren harreman-sarea osatzen ari da eta hau ere euskaraz. Lagunartean euskaraz egitea ohiturazkoa, berezkoa eta erraza izango da. Hemendik sortzen dira geroko **euskal elebidun eta** elebidun orekatuak gehien-gehienbat.

Hizkuntzako erraztasuna taldeak sortzeko bultzagile bakarra ez denez gero, litekeena da, bestalde, talde horien baitan ere euskaraz aritzeko erraztasun handirik ez dutenak izatea. Baldin eta hauek euskaraz erraz egiten dutenen aldean gutxi badira, orduan euskararen aldera makurtuko dira eta euskarazko harreman-sare batean murgilduko dira eta erraztasuna eta maitasuna eskuratuko dituzte. Hitz batez, etxeak eskaini ez zizkien euskarazko elikagaiak haurren arteko harreman sareak eskaini liezaieke. Hauek ere elebidun orekatu bilakatuko dira kasurik gehienetan.

Bestaldean ditugu etxean euskara jaso ez duten haurrak. Beren euskarazko erraztasuna mugatua da oso eta joeraz hurbilduko dira, taldeak osatzen, beraiek bezala gaztelaniaz aritzen direnei. Harreman sare horietan gaztelania izango da hizkuntza aukeratua. Maisuek eta andereñoek antolatuko hainbat jardura formaletan euskara erabiliko dute, baina handik kanpo eta bereziki lagunaren arteko harreman informaletan gaztelania aukeratuko dute.

Harreman hori parkera eta kalera zabalduko dute talde txikiak finkatuz doazen neurrian. Lagunartean sare hauek gaztelaniazkoak izango dira eta bigarrenez galduko dute euskararen berezko elikagaia jasotzeko aukera, hots, erregistro informalak, erraztasuna, maitasuna eta ohitura. Lehenengo aukera galdua etxekoa izan zen. Beraz, ez etxean ez lagunartean ez dute euskarazko praktika berezkorik jasoko. Eskola gelditzen zaie soilik euskarazko iturri baina bere alderdirik formalenetik baino ez dute edango. Nekez iritsiko dira hauek elebidun orekatuak izatera. Kasu gehienetan erdal elebidun bihurtuko dira eta ez dute ez erraztasunik, ez ohiturarik, ez sarerik, ez joerarik euskaraz egitekoa.

Batzuetan talde hauetan haur euskaldunak (euskara etxean jaso duenak) ere murgiltzen da. Holakoetan, sarearen gaztelaniazko inertiak eramango du euskalduna gaztelania hartzera. Badu honek, hala ere, zerbait bere alde, hots, etxean jaso zuela euskarazko berezko elikagaia, eta ondorioz, etxearen eta eskolaren eraginez elebidun orekatua izatera iristeko aukerak ditu. Hala ere, hizkuntzazko jokaerari dagokionez, gaztelaniazkoa izango du seguru asko, gaztelaniazkoa baitu egina lagunarteko sarea.

Eskola, beraz, dugu lagunartekak edo harreman sare horizontalak osatzeko toki aparta. Eta hori egun inoiz baino halaxeago da, zeren kaleak indarra galdu baitu sare horizontalak osatzeko egitekoan. Egundaurrak txikitatik daude eskola giroan murgilduta. Gertaera soziologikoa ukazina da hori. Baina, era berean, aztertu dugu nola etxeko hizkuntzazko eraginak, zeinak haurrak bere baitan daraman hizkuntzazko erraztasuna eta joeraren bidez, nabarmen jokatzen duen lagunartekak osatzeko garaian. Gertaera hau psikolinguistikoa da.

Lagunartekak aurrera egingo dute eta denbora pasa ahala gero eta garrantzia handiagoa izango dute haurren bizimoduan. Nerabezaroan handitu egingo da presentzia eta gaztaro osoan eragin nabarmena izango du. Lagun sareak gehiago ala gutxiago aldatuko dira denboran zehar, baina muin batek, haurtzarotik datorren muin batek alegia, iraun egiten du gehienetan. Gaztarorako iritsi den muin horrek haurtzaroan finkatu zituen hizkuntzazko harremanak, justu etxekoan eragina oso nabarmena zen garaian. Horrexegatik, seguru asko, ikusi dugu guk datuetan oso antzekoa dela gazteek amarekin erakusten duten hizkuntzazko jokaera eta lagunekin erakusten dutena. Beste era batera esanda, amarekin euskaraz egin ohi duten gehien-gehienek euskaraz egiten dute lagunekin ere kalean direnean. Bai eta alderantziz ere amarekin gaztelaniaz egiten dutenean.

Litekeena da behin lagunartekak euskarazko ala gaztelaniazko ildo batean murgilduz gero hura finkatu eta etengabe erreproduzitzea, kideak aldatuta ere. Pentsatzekoa da euskaraz diharduten sare batekoek joera izango dutela beste euskaldun batzuekin harremanetan jarduteko. Sare txikien inguruan sare handixeagoak sortzen dira eta ez da harritzekoa lagunarte berriak sortzea, osoki berriak edo zatikakoak. Baina kideak aldatuta ere, badira kontu batzuk iraun egiten dutenak eta horietako bat hizkuntza dela deritzogu.

Badakigu hau ez dela beti horrela gertatzen, sareko hizkuntza alda baitaiteke indar handiek talka egiten dutenean (horretan izugarriko garrantzia izango du pertsona hori bizi den gune soziolinguistikoko eta bere gertuko harreman-sareetako euskaldunen dentsitateak), baina hori gertatu ezean hizkuntzarenak badu berezko indarra eta inertzia, zeinak kideen gaineko bizitza duena. Beste era batera esanda, gure gaurko ohiturak gure biharko jardura markatzen du. Hori horrela, haurtzaroan euskarazko sareetan murgildutako haurrek berez, erraz eta automatikoki bilatuko dituzte gazteetan ere euskarazko sareak, joera gisa eta gazteetan egindako honek berezko inertzia ekarriko du heltzaroan ere. Inertzia honek, jakina, gorabeherak izan ditzake, ez da lineala eta beti berdina. Nerabezaroan badago, esaterako, gaztelaniaz aritzeko joera ezagunik haurtzaroan euskarazko sareetan ibilitako batzuen aldetik. Baina, handik puxka handiago edo txikiago batera, haletako asko itzultzen da euskarazko jokaerara.

Euskarazko sare horizontaletan murgilduriko haur-gazteek ez dute horregatik gaztelania behar bezala ikasteari utziko. Hamaika harremanbide izango ditu gaztelaniarekin, hizkuntza hau kalean eta gizartean nagusi eta guztiz normalizatua dagoen neurrian.

Gaztaroan izugarritzko garrantzia hartuko dute sare horizontalek, haurtzaroan baino askoz ere handiagoa. Honako sare hauek oso nabarmenak dira:

- 1) Herriko lagunartea
- 2) Ikaskideen ingurua (ikasle izanez gero)
- 3) Lankideen ingurua (lanean arituz gero)
- 4) Bikotea
- 5) Kirol, politika, kultura... elkartekideen ingurua

Bizitza soziala zabalduz eta korapilatuz doan neurrian, harreman sareak irekiago eta ugariago egiten dira. Hiztun motak gehiago nahastuko dira dutenean. Honez gero, erdal elebidunek garbi egingo dute gaztelaniaren aldera. Euskarazko sareetan gizarteratutako gazteek euskaraz bezain ondo egingo dute gaztelaniaz eta hortaz, hizkuntza bata ala bestea aukeratzea badute. Harreman sareak korapilatuz doazen heinean, ez dago beti eta denekin hizkuntzazko jokaera bera eramaterik.

Orain euskaraz egin nahi duenak erne ibili beharko du jakiteko noiz dauden baldintza egokiak euskaraz hitz egiteko eta noiz ez. Hizkuntzazko jokaera arduratsua behar du orain erakutsi euskaraz egin nahi duenak, baina zorionez halakoxeak dira elebidun orekatu gehienak. Datuek diotenez hamar elebidun orekatu **eta euskal elebidunetik** zortzik erabiltzen du euskara solaskideen aldetik baldintza egokiak antzematen dituenen. Hala ere, galera badago horretan. Haurtzaroko sare egonkor, itxi eta iraunkorrak jada ez dira, orain sare zabal, mugikor eta korapilatuak ditugu. Ez zaio beti erraza izango euskaldunari norekin euskaraz hitz egin ahal izatea. Sareak orain lehenago baino nahasiagoak dira hizkuntzaren aldetik **(horretan ere izugarritzko garrantzia izango du pertsona hori bizi den gune soziolinguistikoko eta bere gertuko harreman-sareetako euskaldunen dentsitateak)**.

Eskolak guztiz euskalduntzea lortu ez zituen erdal elebidun horiek are gehiago galduko dute euskarazko gaitasuna, **ziurrenik**, gaztaro eta heltzaroan, bere euskarazko praktika orduko baino askoz ere txikiagoa izaten baita. Zer gertatuko da honelako neska-mutilekin aita-ama bihurtzean? Euskaraz egingo al diete seme-alabei etxean? Gauza izango al dira familia berriz pizteko euskararen txoko bezala? Beraiek etxetik jaso ez zutena bere seme-alabei transmititzeko gauza izango al dira? Hizkuntza transmititzeko berezko mekanismoa abia al daiteke berriro?

Ez dugu uste hau gertatuko denik era zabalean, kasu gutxi batzuk egon daitezkeen arren. Ez baitute nahiko euskarazko erraztasunik izango halako harreman biziari eusteko. Eskola bukatu eta erraztasun mugatua eskuratu zuten horiek are mugatuagoa izango dute gerora euskarazko gaitasuna, zeren hurrengo hamar, hamabost edo hogeitertan haurtzaroan baino dexente gehiago erabiliko baitute gaztelania, haurretan baino askoz ere gutxiago entzun eta hitz egingo baitute euskaraz **kasu gehienetan (ez badira euskaldunen dentsitatea ordura artekoa baino handiagokoa duten sareetan bizitzen)**. Gaztelania inoiz baino sendoago eta euskara gero eta traketsagoa. Hortik abiatuta nekez aukeratuko dute euskara seme-alabekin komunikatzeko.

Oso litekeena da inkestetan orain euskara “nahiko ongi” mintzatzen diren gazteak hamar, hamabost edo hogeitertan berru hain ongi ez mintzatzea, beren gaitasuna kamustuz eta traketsuz joan delako. Guraso izateko tenorea iritsi zaienean seguru asko ez dute euskarazko

tresneria koipeztua eta prestatua izango, seme-alabei transmititzeko. Kasu gehienetan haxe gertatzen da. Orain bai, ez dugu dudarik egiten, erdal elebidun horiek, bere ibilbidearen ondorioz, guraso garaira “nahiko ongi” gaitasun hori gordetzen dutela iritsiko balira, orduan aukera handiak leudekela hauek seme-alabei euskaraz egiteko. Hala ere, tamalez, hauek salbuespenak baino ez dira **izango ziurrenik**.

Badirudi, ordea, elebidun orekatu **eta euskal elebidun** gehienek gaztaro eta heltzaroko urte luzeetan segitzen dutela euskara erabiltzen horretarako aukera dutenean. Euskarak bizirik dirau beren baitan eta hala familia berriak egitean ez dute hutsik egingo bere ondorengoei euskara transmititzen eta harreman hizkuntza bihurtzen.

Gure suposizioa da ezen ama batek, baldin eta euskaraz “oso ongi” edo “nahiko ongi” moldatzen bada, euskaraz egingo diela bere seme alabei.

Garai batean ez zen hain argia izango baieztapen hau, ohartuak baikin euskararen familia bidezko transmisioak huts egiten zuela hainbat eta hainbatetan. Egun, zorionez, joera hori gaintuta dagoela ematen du, bai Gipuzkoan, bai Lasarte-Orian bederen. Suposizio horretan oin harturik esan behar dugu, kezka puntu batez, ama euskaldunen kopurua ez dela aldatu 10 urtetan Lasarte-Oriako udalerrian. Eta horrek esan nahiko luke ez dela etxea indartu euskarazko gune bezala. Alegia, euskararen eragilerik handienetakoa ez dela bizkortu, hazi eta zabaldu. Seguru asko, horregatik ere ez da **euskal elebidunen eta** elebidun orekatuen kopurua apenas aldatu 10 urteetan eta baliteke horrek azaltzea zergatik ez den asko aldatu euskarazko erabilera kalean, lagun artean, zeren baitirudi lagun arteko euskarazko erabilera oso antzekoa dela etxeko euskarazko erabilerarekin.

	1992. urtean	2002. urtean
Ama euskaldunak	26.6	26.4
Euskaraz “oso ongi” mintzatzen diren gazteak	29.7	32.9
Lagunekin euskaraz erabili ohi duten gazteak	23.5	30.0

Ez dugu eskolaren lana eta egitekoa gutxietsi nahi, ez horixe! Bera gabe auskalo zein desagertze puntuan legokeen euskara bera. Beraz, orain artekoari eutsi eta ahal dena hobetu beharko da, zer hobetzerik badago eta. Baina pentsa dezagun baldintza hau honez gero finkoa dela eta aldatzekotan hobera egingo duela. Orduan non bilatu behar dira gakoak benetan euskarazko erabilerak aurrerapen nabarmena ezagutzeko?

Gure irudikoz euskarazko erabilerak ez du aurrerapen nabarmenik ezagutuko, baldin eta gizarte multzo handiek eskolaz gain ez badute euskarazko esperientzia luze eta sakonik talde informalean batean, talde hori familia izan edo sare horizontaleko talderen bat izan. Berezko talde informal horietan garatzen baitira benetan hizkuntzazko erraztasuna, atxikimendua eta ohitura.

Norbaitek euskarazko esperientzia funtsezko hori gurasoengandik etxean jaso badu eginga du orduan bide erdia baino gehiago. Ondoren, eskolari esker eta beste inizatibaren baten laguntzaz osatuko du falta zaiona. Horrek seguru asko familia euskalduna osatuko du sasoiaren denean eta euskararen soka luzeak ez du etenik izango.

Etxean halako hizkuntzazko oparirik eta elikaigarik jaso ez dutenek, alegia Lasarte-Oriako gazte gehienek, zikiratua dute euskalduntze prozesua. Eskola bai izango dute euskal gune, baina ez ordea berezko sareak, ez familia, ez lagunartekoa. Horrela nekez iritsiko dira euskaldun gisa jokatzera. Hauek euskara jaso dute baina ezaugarri formalez beterik, euskararen ezaugarri informal eta biziak falta zaizkie beren prozesua osatu eta burutzeko. Elikagai hau nola eman, hortxe da eskuhartzearen gako nagusi bat.

Elikagai hau jasotzeko aukera izan dutenek edota ahalegina egin dutenek kasu batzuetan elebidun orekatu bilakatuko eta beste batzuetan “nahiko ongi” hitz egiteko gaitasunari luze eutsiko diote. Bai batak, bai besteak, familia euskaldunak osatuko dituzte tenorean daudenean eta euskararen katea berrosatuko da, datozen belaunaldientzat euskara berezkoa izango baita lehenengo hitzetik, seaskatik bertatik. Familia erdaldunetan hazi, eskola eta lagunarte sare batean euskaraz bizi eta azkenik familia euskalduna osatu, hauxe da elebidun hauen ibilbide paradigmaticoa. Hemen gakoa, “lagunarte sare batean euskaraz bizitzea” izango litzateke, hori lortu ezean hurrengo urratsa, hots familia euskalduna osatzea, nekez emango baita.

**“Gazteak eta euskara Lasarte-Orian (2002)” ikerlanaren hainbat datu:**

	Lagun euskaldunekin euskaraz egiten du beti edo gehienetan	Euskara du hizkuntza kuttun bakarra edo kuttunena
<u>Euskaraz oso ongi mintzatzen direnak</u>	69.1	70.9
<u>Euskaraz nahiko ongi mintzatzen direnak</u>	21.5	25.5

**Euskararekiko maitasunaren eta gaitasunaren aldetiko baldintzak**

	Euskarazko ohiko erabilera	Ama euskalduna	D ereduaren Lehen Hezkuntza
Baldintza egokiak	81.6	84.2	97.4
Baldintza erdipurdikoak	42.3	30.8	38.5
Baldintza desagokiak	7.8	3.9	21.3

- 1) Baldintza egokiak dituztenak
  - a. Euskararekiko maitasuna bai eta gaitasuna ere bai
- 2) Baldintza erdipurdikoak dituztenak
  - a. Euskararekiko maitasun argirik ez eta gaitasuna bai
  - b. Euskararekiko maitasuna bai eta gaitasuna erdipurdikoa
- 3) Baldintza desagokiak dituztenak
  - a. Euskararekiko maitasun argirik ez eta gaitasuna erdipurdikoa
  - b. Euskararekiko maitasuna bai eta gaitasunik ez
  - c. Euskararekiko maitasun argirik ez eta gaitasunik ez



**Gizarteratze eremuaren, gaitasunaren eta erabileraren arteko kateamendua**

	Gizarteratze eremu batean hazitakoak	Euskarazko gaitasun oso ona	Euskara erabili ohi du
Ama eta eskola	100	97.0	76.4
Ama soilik	100	50.0	25.0
Eskola soilik	100	30.0	20.0
Ez bata ez bestea taxuz	100	7.1	2.4

1) Ama eta eskola

- a. Ama oso ongi mintzatzen da euskaraz eta eskolatzea D ereduan
- b. Ama nahiko ongi mintzatzen da euskaraz eta eskolatzea D ereduan

2) Ama soilik

- a. Ama oso ongi mintzatzen da euskaraz eta eskolatzea B ereduan
- b. Ama oso ongi mintzatzen da euskaraz eta eskolatzea A ereduan

3) Eskola soilik

- a. Ama erdalduna eta eskolatzea D ereduan

4) Ez bata ez bestea taxuz

- a. Ama erdalduna eta eskolatzea A edo B ereduan
- b. Ama nahiko ongi mintzatzen da euskaraz eta eskolatzea A edo B ereduan

	<b>Lagun euskaldunekin euskaraz egiten du</b>	Lagun euskaldunekin erdaraz egiten du	<b>Guztira</b>
Gazteak amarekin euskaraz egiten du	83.9	16.1	100
Gazteak amarekin gaztelaniaz egiten du	18.4	81.6	100

	1992. urtean	2002. urtean
Ama euskaldunak	26.6	26.4
Euskaraz “oso ongi” mintzatzen diren gazteak	29.7	32.9
Lagunekin euskaraz erabili ohi duten gazteak	23.5	30.0